



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

GARABI-ZERBITZUAREN PRESTAZIORAKO LIZITAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

166. zk-ko AVC proiektua -PROM- (2016)

Aurkibidea:

TOCOsoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, batzordeburua

Natividad Goñi Urriza andrea, batzordekidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, batzordekidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean, LEK) Osoko Bilkurak, 2016ko apirilaren 20an egindako bilkuran —goian aipatutakoek parte hartu zuten bertan—, erabaki du honako txosten hau egitea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, A-8 autobidean eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko, aurrera eramandako lizitazioei buruz.

I.- TXOSTENAREN XEDEA

1. Urtarrilaren hasieran, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren lizitazioetan balizko irregulartasun batzuk gertatu izanaren berri izan zuen, hain zuzen ere A-8 autobidean eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko aurrera eramandako lizitazioetan.

2. LEAren Legeak erakunde horri esleitzen dio administrazio publikoei merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helarazteko eginkizuna¹. Erakundearen zeregina da Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuetan egiazko lehia sustatzea, ekintza ez-zehatzaileen bidez.

LEAk jo du garabi zerbitzuaren kontratazioaren azterketa bat egin beharra dagoela, iraganean antzemandako gabeziak direla eta, eta botere esleipen-

¹ Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3.e) artikulua (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



egileari etorkizuneko kontratazioak hobeki egiten laguntzeko xedearekin. Lehia Defendatzeko Legeak (LDL) LEAri ahalmena ematen dio legea baino maila apalagoko arau juridikoak eta lehian arazoak sortzen dituzten egintza administratiboak aurkatzeko². Erakunde horrek, halere, egokiago jotzen du aurkapeanek saihestea eta efizientzia eragitea administrazioekiko lankidetzan egindako txostenen bitartez.

II.- KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA LEHIA

3.Administrazio Publikoa, jakina den bezala, besteak beste, legezkotasunaren printzipioaren pean dago, eta, horrenbestez, lehia babesteari buruzko araudiaren pean³.

Nazioko eta nazioarteko txosten batzuk badaude kontratazio publikoan lehiaren printzipioak aplikatzearen garrantzia azpimarratzen dutenak, hura errespetatzeak eta bermatzeak gizarteari dakarzkieten onurengatik, zerbitzuen kalitatea, berrikuntza, lehiakortasuna, enplegu-sorrera, erakundeekiko konfiantza eta baliabide publikoen erabileraren efizientzia hobetzeari dagokionez⁴.

Administrazio Publikoaren sailek, agerikoa denez, beren helburu berariazkoak betetzeko betebeharra daukate, zerbitzu publikoen prestazio egokia bermatuz,

² Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703); martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (BOE-A-2011-4117), eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak (BOE-A-2013-5940). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

³ Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua: Administrazio Publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men egin.

⁴ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gidaliburua*. Madril, 2011. Eskuragarri Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren webgunean:http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones/GUIA_CONTRATACION_v4.pdf; EUROPEAN COMMISSION. *Green Paper on the modernisation of EU public procurement policy - Towards a more efficient European Procurement Market - Synthesis of replies*. Brussels, 2011; ORGANIZATION FOR ECONOMIC CO-OPERATION AND DEVELOPMENT, *Collusion and Corruption in Public Procurement. Policy Roundtables* Paris, 2010; ORGANIZACIÓN PARA LA COOPERACIÓN Y EL DESARROLLO ECONÓMICO, *Lineamientos de la OCDE para combatir la colusión entre oferentes en contrataciones públicas*, Ref. DAF/COMP(2009)1/FINAL. Paris, 2009; COMISION NACIONAL DE LOS MERCADOS Y LA COMPETENCIA, *Análisis de la Contratación Pública en España. Oportunidades De Mejora desde el punto de vista de la Competencia*, Madrid, de 5 de febrero de 2015. PRO/CNMC/001/15; COMISION NACIONAL DE LOS MERCADOS Y LA COMPETENCIA, *Informe sobre el Anteproyecto de Ley de Contratos del Sector Público*, de 16 de julio de 2015, Madrid, IPN/CNMC/010/15.



baina, halaber, eginkizun hori efizientziaz betetzeko betebeharra daukate. Baliabide publikoen erabileran efizientziaz jokatzeko zein lehiaren bermea biak ala biak aginduzko betebeharrak dira kontratazio publikoko organoentzat.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak (aurreratzean, SPKLTB) ezartzen du Administrazio Publikoak kontratazioaren funtzionamenduaren oinarri den lehia askea zaindu behar duela, efizientzia sortuz eta kalitatea hobetuz⁵. Arau horri zenbait aldaketa egin zaizkio txosten honetan aztertutako kontratuen bizitzan zehar. Une bakoitzean indarrean dauden testuei buruz ari gara, haien araupetzea garrantzitsua denean Administrazioaren jarduketari buruzko ondorioak lortzearen ondorioetarako.

III.- EGIN DIREN KONTRATUEN ANALISIA

1. Zerbitzua emateari buruzko azalpena

4. Eusko Jaurlaritzak kontratatutako prestazioa honako honetan datza: ibilgailu arinak eta astunak, 3.500 Kg. bitartekoak garabi bidez urgentziaz erretiratzeko zerbitzua, ibilgailu horiek zirkulazioa eragotzi eta bide-segurtasunerako arazo handiak ekarri ahal dutenean.

Administrazioak zerbitzu hori eskaintzen du zirkulazioaren baldintzak direla-eta partikularrek kontratatutako aseguru-konpainietako laguntza-zerbitzuek zerbitzu behar bezain arina emateko moduan ez dauden garaietan eta ordu-tarteetan, bidearen erabiltzaileentzat zirkulazioaren joan-etorri normala epe onargarri batean berrezartzeari begira.

Zerbitzu hori ematen deneko errepide-tarteak, nagusiki, A-8 autobian daude, Bizkaiko zatian, Basauritik hasi eta Kantabriako mugaraino, Bilboko San Mamesko sarbidean eta Bilboko metropolialdean.

⁵ Ikus Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.1 artikulua (BOE 276 zk., 2011ko azaroaren 16koa), zehazki, honako hauek aldatu dutena: 17/2012 Legeak, abenduaren 27koak, (BOE-A-2012-15651), 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, otsailaren 22koak (BOE-A-2013-2030), 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak (BOE-A-2013-6938), 8/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 28koak (BOE-A-2013-7063), 10/2013 Legeak, uztailaren 24koak (BOE-A-2013-8083), 11/2013 Legeak, uztailaren 26koak (BOE-A-2013-8187), 14/2013 legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), 20/2013 Legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12888), 25/2013 Legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13722), 1/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, urtarrilaren 24koak (BOE-A-2014-747), 13/2014 Legeak, uztailaren 14koak (BOE-A-2014-7468), 2/2015 Legeak, martxoaren 30ekoak (BOE-A-2015-3443), 25/2015 Legeak, uztailaren 28koak (BOE-A-2015-8469), 31/2015 Legeak, irailaren 9koak (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 11koak (BOE-A-2015-9801), 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak (BOE-A-2015-10566). Testu kontsolidatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.



Segurtasun Departamentuak aurrez finkatutako kokapen batzuk ezartzen ditu, non garabiak jartzen baitira egun eta ordu jakin batzuetan, Zirkulazio Zuzendaritzaren erreskate-deia jaso bezain laster jarduteko prest. Garabiak aurreikusitako tokietan jarriko diren egunak eta orduak ibilgailuen joan-etorriaren intentsitatearen eta historikoki izandako istripu-kopuruaren arabera izango dira. Oinarri teknikoaren agiriak A-8ra arin sartzeko zenbait alde aurreikusten dituzte, bai eta istripu ugari izan ohi diren tokietatik hurbil dauden tarteetara edo zirkulazioaren baldintzak direla-eta berehala jardun beharreko tokietara ere.

Behin istripua edo/eta matxura izandako ibilgailuak erretiratuta, enpresa esleipen-hartzaileak proposatutako instalazioetara eramaten dira, eta bertatik jasoko dituzte kasuan kasuko aseguru-konpainietako laguntza zerbitzuek.

Administrazioak kaudimen teknikoaren baldintza gisa eskatzen du, besteak beste, gutxienez ere hiru garabi edukitzea 3.500 kg bitarteko arrastatze-ahalmenarekin, eta positiboki baloratzen du enpresa lizitatzailerik errefortzuko beste garabi batzuk edukitzea, haien beharra badago ere.

Administrazioak ordu eta garabi bakoitzeko gehieneko prezioak ezartzen ditu (lanegunak eta jaiegunak bereizita).

Agiriekin gehienez ere % 40ko azpi-kontratazioa baimentzen dute. "Zabalik utziko da hornitzaileen artean azaldutako zerbitzuak emateari begira akordioak egiteko aukera, baldin eta akordio horien helburua bada ibilgailuak errepidetik erretiratzera ahal bezain azkar eta ahal den eraginkortasun handienaz."

5. Zerbitzuak emateko kontratu bat da hau, zeina edozein arrazoi dela-eta autobideko zirkulazioa eragotz dezaketen ibilgailuak urgentziaz erretiratzeari baimatzea.

Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko araudiaren aplikazioak araupetze konplexua dakar, zeinak berarekin baitakar kontratu bakoitzaren exigentziak kontratu horren kategoriaren eta zenbatetsitako balioaren arabera izatea.

Europar Batasunean kontratu motak Batasunaren Erregelamenduaren bidez sailkatu dira, non lengoia komun bat sortu baita, **CPV kode** deitutakoetan oinarritua⁶. Kode horiek, 9 digitu dituztenek, kontratuen kategoriak definitzen

⁶ Ikus Europako Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 (EE) Erregelamendua, kontratu publikoen hiztegi erkidea (CPV) onartu zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamendua aldatzen duena (2008ko martxoaren 15eko L 74 EBAO, 1. or.) eta kasuko unean indarrean zeuden kontratazioari buruzko zuzentarauak: Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2004/17/EE Zuzentaraua, 2004ko martxoaren 31koa, ur-, energia-, garraio- eta posta-zerbitzuen sektoreetako esleitze-prozeduren koordinazioari buruzkoa (2004ko apirilaren 30eko L 134 EBAO, 1. or.) eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2004/18/EE Zuzentaraua, 2004ko martxoaren 31koa, obrak, hornitzeak eta



dituzte, haien helburuaren arabera. Nomenklatura horren abiapuntua da hornidura-, obra- edo zerbitzu-kontratuen arteko bereizkuntza egitea. Horren helburua da Europar Batasunean zirkulazio askea erraztea eta prozedurak ulergarriago gertatzea, edozein direla ere Batasuneko kide den estatu bakoitzaren arau-ereduak, halako moduz non enpresek aukera-berdintasuneko egoeran lehiatu ahalko duten. Bermatu nahi da enpresentzako erraztasun batzuk egotea eta, horrenbestez, Europa mailako lehia egotea⁷.

Europar Batasunaren jarraibideei jarraituz, CPVan deskribatutako kontratuak Estatuko araudiak kontratu-kategoriatan sailkatzen ditu, eta kategoria horiek balio dute Administrazioak kasu bakoitzean errespetatu behar duen prozeduraren eta publizitatearen betekizunak finkatzeko. 6. artikulua, zeina Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bertsio guztien I. eranskinarekin lotuta baitago, obra-kontratutzat jotzen diren prestazioak identifikatzen ditu (45000000 eta 45500000 arteko CPVak). Sektore Publikoko Kontratuen Legearen bertsio guztien II. eranskinak 27 "**kontratu-kategoria**" finkatzen ditu, eta horietako bakoitzaren barruan zenbait CPV zenbaki daude.

Kategoria horietatik lehena hau da: "1. Mantentze- eta konpontze-zerbitzuak". Horren barruan, 50100000 CPVtik 51900000-1 CPVra arte deskribatutako kontratuak sar daitezke.

Itxiera klausula gisa, 27. kategoriak "bestelako zerbitzuak" izena darama, eta hartan sartzen dira lehenago zerrendatutako CPV kodeetako bakarrean ere ezin sar daitezkeen zerbitzuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko II. eranskineko kategoriek (horietako bakoitzak CPV izendapenak biltzen ditu), kontratu bakoitzaren zenbatetsitako balioari lotutakoek, zehazten dute kontratu hori **erregulazio harmonizatuaren** arabera den ala ez, horrek dakartzan inplikazio juridikoekin⁸. Zehazki, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 16. artikulua ezartzen du II. eranskineko

zerbitzuak kontratu publiko bidez esleitzeko prozeduren koordinazioari buruzkoa (2004ko apirilaren 30eko L 134 EBAO, 114. or.).

⁷ Jada (EE) 2195/2002 Erregelamenduaren atarikoan —ez du transposizioa eskatzen—, ezartzen zen CPV kodearen zehaztapena beharrezkoa dela administrazio kontratuegilearentzat, eta gomendagarria dela enpresek argitasunez identifika ditzaten merkatuari eskaintzen dizkieten zerbitzuak, hornidurak eta obrak. Ikus, halaber, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 67.2 a) artikulua —773/2015 Errege Dekretua, abuztuaren 28koa, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartutako Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko zenbait manu aldatzen dituen—. 2015eko irailaren 5eko BOE, 213. zk.

⁸ Erregulazio harmonizatuaren inplikazio juridikoek eragina dute, funtsean, publizitatearen (Europakoa) eta eskaintzak aurkezteko epeen esparruetan. Kontratu horiek guztiz atxikitzen zaizkie Europako jarraibideei, eta haiek direla-eta estatuko legegileak jardute-tarte eskasa dauka.



1 eta 16 kategorien artean bildutako zerbitzuak beti erregulazio harmonizatuaren pean egongo direla, baldin eta aldizka lege-aldaketen bitartez gaurkotzen den atalase ekonomiko jakin bat gainditzen badute. Ez da hori 27. kategoriaren kasua.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 54. artikuluan (2007ko bertsioa) edo 65. artikuluan (2015eko bertsioa) ezartzen du zein diren, zenbatetsitako balio batetik gora, **sailkapena** behar duten kontratuak⁹. 65. artikulua 2015eko azaroaren 5ean hartu zuen indarra. Data hori baino lehen, 1. kategorian sartutako zerbitzu-kontratuak, 200.000 eurotik gorakoak izanez gero, enpresa lizitatuaren nahitaezko sailkapena eskatzen zuten¹⁰. Aitzitik, 27. kategorian sartutakoetan, ez zen halakorik eskatzen¹¹. Data horretatik aurrera, nahitaezko sailkapena ez da kasu horietan guztietan eskatzekoa.

2.- Aztertutako kontratuen aurrekariak

6. 2014 baino lehen, zenbait lizitazio izapidetu ziren, taula honetan jaso ditugunak:

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:	Esleipenduna
EX 216/11	2011/05/20	2011/07/04	2011/09/04	Isla
T-319/11	2011/11/04	2011/12/12	2012/06/30	Isla
T-103/12	2012/05/03	--	--	Esleitu gabe
T-094/13	2013/06/10	2013/07/24	2013/12/31	Isla

Kontratazio-agiriak idazterakoan, kontratua, haren kategorია, sailkapenaren eskakizuna eta erregulazio harmonizatuaren menpekotasuna sailkatzen ditu Administrazioak, aurreikusitako zerbitzuaren elementu guztiei erreparatuta.

Esp.	Balio zenbatetsia, eurotan	CPV	KAT.	Erregulazio harmonizatua	Mota	Sailkapena
EX	59.999,00	50118110-9	Ez da	EZ	Negoziatua,	EZ

⁹ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea (BOE, 261. zk., 2007ko urriaren 31koa, 44336 orrialdetik 44436 orrialdera). Gaur egun indargabetuta dago.

¹⁰ SPKLTBeko laugarren xedapen iragankorrek ezartzen du aipatutako 65. artikulua ez duela indarrik hartuko arestian aipatutako erregelamendu bidezko garapenak indarra hartzen ez duen bitartean, eta hori 2015eko azaroaren 5ean gertatu zen.

¹¹ Ikus Administrazio Kontratuzioko Kontsulta Batzordearen 2011ko abenduaren 15eko 9/11 txostenean eskainitako interpretazioa. "Sektore Publikoko Kontratuen Legeko bosgarren xedapen iragankorarekin eta Legearen 54.1 artikulua aplikazioarekin zerikusia duten kontuak". Hemen eskura daiteke: <http://www.minhap.gob.es/es-ES/Servicios/Contratacion/Junta%20Consultiva%20de%20Contratacion%20Administrativa/Informes/Paginas/default.aspx>.



216/11			aipatzen		publizitaterik gabe	
T-319/11	59.999,00	50118110-9	Ez da aipatzen	EZ	Negoziatua, publizitaterik gabe	EZ
T-103/12	186.440,68	45510000-5	Ez da aipatzen	EZ	Irekia	BAI. R.7.A
T-094/13	95.867,77	45510000-5	Ez da aipatzen	EZ	Irekia	EZ

2011n, Administrazioak 50118110-9 CPV zenbakiarekin sailkatu zuen kontratua, hau da, "Ibilgailuak atoniam eramateko zerbitzu kontratu" gisa. 120.000 eurotik beherakoak zirenez, ez zen erregulazio harmonizatua aplikatu, eta haietako bakarrean ere ez zen sailkapenik eskatu.

2012tik aurrera, Administrazioak erabilitako CPV kodea 4551000-5 da. Horrek esan nahi du zerbitzua honela definituta dagoela: "Obra kontratua: Garabiak alokatzea gidariarekin", zeina ez baitator inolaz ere bat kontratuaren egiazko edukiarekin.

2012ko kontratu horretan, Administrazioak, nahiz eta haren kategoria ez duen definitzen, enpresa lizitatuak R.7.A. epigrafearen pean sailkatzea eskatzen du¹². Eskakizun hori bateraezina da Administrazioak finkatutako obra-kontratuaren CPVarekin.

2013. urtean, kontratua oraindik ere zerbitzuetako kontratu gisa sailkatuta dago agiritan, baina obra kontratuari dagokion CPVa ematen zaio, eta sailkapenari iskontxo egiten dio.

7. Lizitazio horien balioespen-irizpideak honela puntuatzen ziren:

Zk.	Balioespena (guztira: 100 puntu)							
	Ekonomikoa	Balioespen subjektiboarekin 40 puntu					Hobekuntzak	
		Jardunbidea	GPS	Ordutegiak zabaltea	Erantzun-denbora			
EX 216/11	60	5	10	5	5	5	5	5
T-319/11	Ez dago daturik	Ez dago daturik						
T-103/12	60	5	10	5	5	5	5	5
		Jardunbidea	GPS	Ordutegiak zabaltea	Eskuragarritasuna: 24 o.			
T-094/13	60	15	5	5	5	5	5	5

8. 2011ko bi kontratuek, CPVaren arabera egoki sailkatuta daudenek, legeak baimendutako gehieneko kopurua dute (zentimoz zentimo), eta horrek aukera ematen dio Administrazioari prozedura irekia bazter uzteko. Izan ere, urte

¹² Orduan indarrean zegoen erregelamendua, orain indargabetuta dagoena, 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, zeinaren bidez onartzen baita Herri Administrazioen Kontratuak buruzko Legearen Araudi Orokorra. 257. zenbakidun BOE, 2001eko urriaren 26koa.



berean bi kontratu egiten dira, eta horietako bakoitzean legeak baimendutako gehienekora iristen da. Batak bi hilabeteko iraupena du eta besteak, berriz, sei hilabetekoa.

Larriago gertatzen da kontratua CPV erregelamenduaren arabera desegoki sailkatuta egotea, eta hori horrela izatea bai 2012an, bai 2013an ere. Kontratua 45510000-5 CPVaren pean sailkatzen da: "Obra kontratua, garabiak alokatzea gidariarekin".

3.- 2014-2016 aldiko lizitazioak

9. 2014-2016 aldirian zerbitzu bera emateko bost prozedura egon dira.

A. 58/14 espedientea

a. Deskribapena

10. Kontratu hori lizitazio irekiko prozedura baten bitartez bideratzen da¹³. Exekuzio epea 24 hilabetekoa zen, eta hiru luzapen egiteko aukera ematen du.

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:
T-058/14	2014/03/11	2014/05/15	2016/05/15

Zenbatetsitako balioa 555.371,90 eurokoa da. 45510000-5 CPVaren pean sailkatzen da, eta ez dago erregulazio harmonizatuari lotua. Haren kategorია: "bestelako zerbitzuak, 27. zenbakia" da.

Lizitazioaren gehienekoa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)	
Lanegunak	Jaiegunak
60 €/o.	70 €/o.

Berriazko klausula administratiboan agirietan jasotako balioespen irizpideak eta azpi-irizpideak honako hauek izan ziren:

Aurrekontua	Balioespen-irizpideak (100 puntu, guztira)					
	Ekonomikoa	Balioespen subjektiboarekin				
		45 puntu				
		Hobekuntza gehigarriak				
	Jardunbidea	GPS	Ordutegiak zabaltea	Eskuragarritasuna: 24 o.	Beste batzuk	
277.685,95 €	55 puntu	20	5	5	5	5

¹³ Iragarkia, «A-8an eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko zerbitzua» xede duen zerbitzuen administrazio-kontratua lizitatzeko dena (Espedientea: T-058/14). 2014ko martxoaren 11ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 48. zk., 1187. or.



Eskaintza ekonomikoaren balioespena hirukotearen alderantzizko erregelaren bitartez egiten da; hau da, puntu gehiago ematen zaizkio eskaintza ekonomiko baxuenari, baina ez da zehazten zein den Administrazioak erabilitako formula.

Memoria teknikoaren atalean, labur deskribatzen da enpresa lizitzaileak lan-prozeduraren deskribapen bat eginen duela, agirian eskatutakoari egokitu. Agiriak zehazten du eta ezartzen du zein diren garabien jardun-guneak; zerbitzua emateko behar diren gutxieneko bitartekoak; jardunbidearen oinarritzko diseinua; erantzuna emateko eta itxarote posiziora itzultzeko gutxieneko denborak, eta egindako jarduketei buruzko txostenak egiteko prozedura. Agiriak ezartzen du horietatik direla enpresek garatu eta hobetu behar dituzten puntuak, atal honetan puntuaziorik handiena lortzeko.

11. Ondoren, enpresek egindako eskaintzak jaso ditugu.

Eskaintako prezioa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)			
Gruauto		Isla	
Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak
35 €/o.	35 €/o.	50 €/o.	56 €/o.

Honako hau da enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa:

Irizpide objektiboetan lortutako puntuazioa 55 puntu	Balioespen-irizpideetan lortutako puntuazioa				
	Memoria teknikoa 25 puntu		Hobekuntzak 20 puntu		
	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto
55	38,5	3,5	25	2,5	20

Hau da, Gruautok 61 puntu dauzka eta Islak, berriz, 83,5.

12. Kontratazio Mahaiak Gruautori eskatu zion (2014ko apirilaren 8an) eskaintza ekonomikoa (35 €/o.) justifika zezala, zeren eta jotzen baitzen eskaintako prezioak balio ez-normal eta desproporzionatuak bil zitzaizkela. Gruautoren justifikazioa onartu zen, eta nahikotzat jo zen eskaintza ausarkeriazko bajatzat ez hartzeko.

13. Kontratua Islari esleitu zitzaion, baina ez zen formalizatu, zeren eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak deuseztatu baitzuen.

b. Balioespena

- Eskaintza ekonomikoak

14. Harrigarri gertatzen da eskaintza ekonomikoari emandako puntuazioa bost puntu beheratu dela —elementu objektibo bakarra da— aurrez irekitako lizitazioekin alderatuta. Organo kontratu-egilearen balioespen subjektiboa



eskaten ez duen eskaintzen ebaluaziorako balioesteko irizpide bakarrak guztizko puntuen % 50 doi-doi gainditzeko du.

15. Eskaintza ekonomikoen balioespenari dagokionez, gogora ekar daitezke Lehiaren Batzorde Nazionalak aipatutako gomendioak¹⁴.

“Eskaintzak balioesteko erabiltzen den metodoak aukera eman behar du tarte behar bezain zabala egoteko oinarrizko elementu horietako bakoitzean lehia balia dadin (...) debekatuta dago jada ezarrita dauden edo sektorean denbora luzea daramaten enpresei bidegabeki mesede egitea, esate baterako horrelako enpresen mesederako bazterketa bidera dezakeen haztapena eginez”.

Prezioaren haztatze desegokiak abantaila ematen dio prezioari esleitzen zaion puntuazioa honako hau izateari buruzko printzipioa errespetatzen ez duen enpresa onuradunari:

“... oinarrizko aurrekontuaren gutxitzeari proportzionala dena, parametro horrek kontratuaren esleipena erabakitzeke garaian daukan eragina ez desitxuratzeko.”

16. Kontratu honetan, agiriak eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko erabiltzen duen moduak ez du formula matematikorik biltzen, baizik eta proportzionaltasun printzipioaren aplikazioari buruzko aipamen bat. Sistema horrek ez du aukerarik ematen aldeek aurreikusitako aplikazio automatiko bat egiteko; izan ere, eskaten du Administrazioak hura aplikatzeko balio-judizio bat egitea¹⁵.

Eskaintza ekonomikoa kalkulatzeko modu honek ez du aukerarik eman eskaintzei puntuazioa emateko aurrekontuaren gutxitzearekin proportzionala den moduan, eta parametro horren eragina desitxuratu du enpresa onuradunaren alde. Formula objektibo bat finkatzeak eskaintzen puntuazioen artean alde handiagoa izatea ekarriko zuen, eta horrela efizientzia handiagoa lortuko zen baliabide publikoen erabileran.

Hori dela eta, ondorioztatu behar da sistema honek ez duela bermatzen exijitzekoa den gardentasun-gradua eta aurreikusteko modukoa izatea, eta, horrenbestez, ez duela lehia askea bermatzen¹⁶.

¹⁴ CNC, *Kontratazio Publikoari... op. cit.*

¹⁵ Ikus Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 4/2016 Ebazpena. 1193/2015 zk-ko errekurtsoa, 2014ko urtarrilaren 12koa).

¹⁶ Ikus Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 2014ko uztailaren 4ko 70/2014 Ebazpena, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak sustatutako "A-8an eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko zerbitzua" kontratuaren esleipenaren aurkakoa.



- Balioespen subjektiboko irizpideak

17. Atal subjektiboa balioesteko irizpideak berdin eztabaidagarri gertatzen dira. Hobekuntzei dagokienez, Lehiaren Batzorde Nazionalaren gidaliburuak honako hau ezartzen du:

"Balioespen irizpideek argi islatu behar dituzte berariazko helburuak, asetzea dela-eta puntuazioa eman beharrekoak, eta zehazki saihestu beharra dago haien enuntziatua lausoa izatea edo bitartekoak eta xedeak nahastea.

8. Balioespen irizpideak behar bezala definituta ez egotea. Hautatutako irizpide bakoitzaren definizioak adierazi behar du, zalantzarik gabe, bilatutako helburuaren edukia. Behin helburuak zehaztuta, askatasuna eman behar zaio lizitatzailari lortzea egokiagotzat jotzen dituen bitartekoei dagokienez, lizitatzailaren ekoizpen-faktoreen antolaketan interferentziak saihestuz. Puntuazio irizpideek balio-judizioak jasotzen dituztenean, gomendagarria da zehaztea zein izango diren ebaluazio kualitatibo horretarako kontuan hartuko diren elementuak, haiek azpi-irizpideen bitartez deskribatuz eta horietako bakoitzari emango zaion puntuazioa aipatuz.

18. GPSaren baldintzari dagokionez, aitortuta dauzkan bost puntuak berariazko klausula administratiboen agiriaren karatulako 30.2.1 b) atalean aipatzen dira soilik; hau da, ez datoz zehaztuta oinarri teknikoen agirian (2014a baino lehenagoko lizitazioetan, T-216/11 eta T-103/12, jasota zetorren oinarri teknikoen pleguetan, 10 punturekin). Gruautoren eskaintzari 5 puntutatik 2,5 puntu eman zitzaizkion, sistemaren argazkirik edo azalpenik ez aurkezteagatik; eskakizun horiek, ordea, ez zeuden zehaztuta agirian.

Kontratu honetan ez da zehazten zein diren Administrazioak balioetsiko dituen elementu zehatzak. Agiriak soilik adibideen zerrenda bat dakar, "eta abar" formula erabiliz, halako moduz non hobekuntzen hautaketa eta balioespena kontratazio-organoak nahierara erabakiko baititu, haiek aplikatzeko baldintzarik gabeko askatasuna emanda.

Enpresek hobekuntzak aurkeztu ahal izateko elementu zehatzak zein diren aipatzen ez denez, ez eta haietako bakoitzari zein balio emanen zaion ere, enpresek ez dute eskaintza errealista eta lehiakorra taxutzeko behar duten informazioa. Elementu horien zehaztasun faltak, halaber, berdintasun-printzipioaren bermea eragozten du¹⁷.

¹⁷ Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak hobekuntza gehigarrien atalaren deuseztasuna deklaratzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 147. artikulua baldintzak ez betetzeagatik, bertan eskatzen baita hobekuntzak eskain daitezkeen elementu zehatzak berariaz aipatzeko.

**- Ondorioa**

19. Ez CPVa, ez 27. kategoriaren —"bestelako zerbitzuak"— sailkapena ez dagozko kontratuaren izaerari. Kalifikazio oker horrek ondorio negatiboak dauzka kontratu mota dela eta, zeren eta ez baita jarri erregulazio harmonizatuaren betekizunen menpe eta, horrenbestez, besteak beste, publizitatea eta balizko eskaintzaileei zabaltzea mugatu baitira.

Gainera, lizitazioak agerian jartzen du Administrazioak diseinatutako kontratazio moduak ez dituela bermatu tratu berdintasuna eta lehia askea, zeren eta interes orokorrerako efizientzia handiagoa sortzen duten ereduak bai baitaude. Ebaluazio irizpideen zehaztasun ezak ez ditu ezartzen organo esleipen-egilearen diskrezionalitatearen mugak, zeinak beharrezkoak baitira lizitazioaren babesgabetasuna saihesteko¹⁸.

Agiria aurkatu ez bada ere, esleipena baita aurkatu dena, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak jo zuen prozedurak gardentasun eta berdintasun printzipioak urratzen zituela agiriaren egituraketan, bizio batzuk sortzen baitzituen, eta horien ondorioz zuzenbidez guztiz deuseza zela "Hobekuntza gehigarriak" eta "Eskaintza ekonomikoa" irizpideei zegokienez. Hori dela eta, lizitazio prozesu osoaren deuseztasuna deklaratu zuen.

B. 171/14 espedientea**a. Deskribapena**

20. Espediente hau publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetu zen. Aurrekontua 30.000 eurokoa zen, eta zenbatetsitako balioa, berriz, 60.000 eurokoa.

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:
T-171/14	2014/07/21	2014/11/14	2014/12/31

45510000-5 CPVaren pean sailkatzen da, "bestelako zerbitzuak, 27. zenbakia" kategoriaren pean.

Lizitazioaren gehienekoa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)	
Lanegunak	Jaiegunak
60 €/o.	70 €/o.

¹⁸ Gaztela Mantxako Auzitegi Nagusiaren epaia, 2000ko martxoaren 25ekoa. Administrazioarekiko Auzien 2. Sala. 1934/9997 errekurtsua. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 18/2015 Ebazpena eta hartan aipatzen den Europako jurisprudentzia.



Honako hauek izan ziren erabilitako esleipen-irizpideak:

Balioespen-irizpideak (100 puntu, guztira)					
Ekonomikoa	Balioespenarekin 40 puntu				
	Memoria teknikoa		Hobekuntzak		
	Jardunbidea	GPS	Ordutegiak zabaltea	Erabilgarritasuna 24 o.	Ordutegiz kanpoko jarduketak
60 puntu	20	5	5	5	5

Aurreko espedientearen deuseztasunaren ondorioz, interpretaziorako tarterik uzten ez duen formula matematiko bat sartu zen eskaintza ekonomikoaren puntuazioa kalkulatzeko.

Lizitazio horrek 5 puntu gehiago ezarri zion eskaintza ekonomikoari, "hobekuntzak" atalaren kaltetan.

21. Gruautok orduko 35 euroko eskaintza ekonomikoa egin zuen —aurreko kontratuan bezala—. Islak orduko 45 € eskaini zituen, bai lanegunetan, bai jaiegunetan ere; hau da, aurreko lizitazioan baino 5 € gutxiago. Atal honetan, Gruautok gehieneko puntuazioa lortu zuen, 60 puntu, eta Islak, berriz, 46,67 puntu.

Eskaintzak aldeztu aurretik balioetsi ondoren, proposatu zen honako alderdi hauek negoziatu zitezela enpresa horietako bakoitzarekin:

- Islari aukera ematen zaio prezioa berraztertzeko.
- Gruautori aukera ematen zaio jardunbidearen diseinua zehazteko, zeren eta eskaintzan ez baitie erantzuna ematen agiriko alderdi guztiei.

Enpresen erantzunak jasota, esleipen-proposamena egin zen, honako hauek kontuan hartuta:

- Islak prezioa 45 eurotik 35 eurora jaisten du, Gruautoren eskaintza berdinez. Horrek berarekin dakar biek 60 puntu izatea eskaintza ekonomikoaren atalean.
- Gruautok "Diseinua" atala hobetu zuen, eta 15,5 puntu lortu zituen.

Gruautoren guztizko eskaintzari 80 puntu eman zitzaizkion, eta Islarenari, berriz, 81,67 puntu, honako parametro hauen arabera:

Irizpide objektiboetan lortutako puntuazioa 60 puntu		Memoria teknikoko puntuazioa					
		Jardunbidea 20 puntu		GPS 5 puntu		Hobekuntzak 15 puntu	
Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla
60	60	15,5	19,5	5	0	6	15

Kontratua Islari esleitu zitzaion.

Kontratuaren zenbatekoa kontuan hartuta, ezin da errekurtsorik aurkeztu Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan.



b. Balioespena

22. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 178. artikulua ezartzen du prozedura negoziatuetan beharrezkoa izango dela kontratuaren objektua gauzatzeko gaitasuna duten gutxienez hiru enpresari eskatzea eskaintzak, posible izanez gero.

Lehiaren Euskal Agentziak kontsultatutako aktetatik eratoritzen da negoziazioan bi enpresa daudela.

- Eskaintza ekonomikoa eta balioespen subjektiborako irizpideak

23. Agiriak balioespen subjektiboko bi azpi-atal bereizten ditu kontratu honetan: memoria teknikoa, zeinari 25 puntu ematen baitzaizkio, eta hobekuntza gehigarriak, 20 puntuko puntuazioa dutenak.

Aurreko kontratuan bezala, GPSak berarekin dituen puntuak ez dira zehaztu agirian. Hobekuntzak 15 puntu gutxitu dira, eta zehaztu egin dira. Hori positibotzat jo beharra dago.

24. Eskaintza ekonomikoaren balioespenaren atalari dagokionez, esan beharra dago erabilitako formula matematikoa irizpide objektibo bakarra sartzen duela, interpretazioa exijitzen ez duena. Positibotzat jotzen dugu hori.

Hala eta guztiz ere, lehiaren ikuspuntutik, judizio negatiboa eman beharra daukagu, zeren eta formulak ez baititu haztatzen lanegunen eta jaiegunen kopurua, eta enpresek eskainitako prezioen zuzeneko batez besteko aritmetikoa egiten baitu. Prezioak zerbitzua egiazki erabiltzen deneko lanegunen eta jaiegunen kopuruari erreparatuta haztatze hutsak egoki haztatuko zituen enpresen eskaintzak zerbitzu-ematearen errealitateari —eta, horrenbestez, efizientziari eta interes orokorrari— egokitutako modu batean.

- Negoziazioaren terminoak

25. Negoziazioaren terminoak ezin dira onargarritzat jo lehiaren ikuspuntutik, zeren eta modu desberdinean mugatu baitzituzten enpresek hasierako eskaintzetan egin zitzaizketen aldaketak. Islari soilik prezioa beheratzeko aukera eman zitzaion, eta Gruaatori, berriz, soilik bere jardunbidearen diseinua hobetzeko.

Horrekin, ez ziren jarraitu Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontratazio Publikoari eta Lehiari buruzko Gidaliburuaren jarraibideak, zeinetan hauxe ezartzen baita: "Eskaintzak balioesteko erabiltzen den metodoak aukera eman



behar du tarte behar bezain zabala egoteko oinarrizko elementu horietako bakoitzean lehia balia dadin"¹⁹.

Kasu honetan, argi dago Administrazioak enpresen hobekuntza-aukerak mugatzeak ez duela bermatzen lehia-prozedura orotan ezinbestekoa den berdintasuna.

C. 15/15 espedientea

a. Deskribapena

26. Kontratazioa berriz ere prozedura irekiaren bitartez egin zen, eta lizitazioarako oinarrizko aurrekontua 247.686 eurokoa da. Zenbatetsitako balioa 495.372 eurokoa da.

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:
T-015/15	2014/11/24	2015/02/19	2016/12/31

45510000-5 CPVa esleitzen zaio, "bestelako zerbitzuak, 27. zk." kategoriaren pean. Hori dela eta, erregulazio harmonizaturik eta sailkapenik gabeko kontratazioa irekitzen da.

Lizitazioaren gehienekoa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)	
Lanegunak	Jaiegunak
60 €/o.	70 €/o.

Honako hauek izan ziren esleipen-irizpideak:

Balioespen-irizpideak (100 puntu, guztira)				
Ekonomikoa	Balioespenarekin 30 puntu			
	Memoria teknikoa	Hobekuntzak		
	Jardunbidea	Ordu-tegiak zabaltzea	Erabilgarritasuna 24 o.	Ordu-tegiz kanpoko jarduketak
70 puntu	15	5	5	5

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa kalkulatzeko, aurreko espedientean — 171/14— erabili zen formula matematiko bera jarri da.

GPS atala kendu da eta memoria teknikoa jardunbidearen diseinura mugatu da. Hobekuntzen atala ez da aldatu.

¹⁹ *Op. cit.*, 8. or. Ikus, halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 176. eta 178.3 artikulua. Berariazko baldintzen agirian, halakorik dagoenean, zehaztuko da zein gai ekonomiko eta tekniko negoziatu beharko diren enpresekin, kasua bada. Negoziazioan zehar, organoek zaindu beharko dute lizitatuzaile guztiek tratua bera jasotzen dutela.



27. Islak orduko 28 € eskaintzen ditu lanegunetarako eta orduko 39 € jaiegunetarako. Gruautok hasierako eskaintzari eusten dio, bai lanegunetan, bai jaiegunetan ere.

Eskaintako prezioa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)			
Gruauto		Isla	
Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak
35 €/o.	35 €/o.	28 €/o.	39 €/o.

Honako hauek dira enpresa bakoitzak lortutako puntuazioak:

Irizpide objektiboetan lortutako puntuazioa 70 puntu	Balioespen-irizpideetan lortutako puntuazioa				
	Memoria Teknikoa: jardunbidearen diseinua 15 puntu		Hobekuntzak 15 puntu		
	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto
67	70	14,50	14	8	15

Guztira, Islak (99 puntu) 9,5 puntuko aldea ateratzen dio Gruautori (89,50 puntu).

Kontratu hau Isla enpresari esleitu zitzaion²⁰. Ez zen gauzatu, zeren eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak partzialki baietsi baitzuen erakundean aurkeztutako errekurtsoa.

b. Balioespena

- Eskaintza ekonomikoa

28. Botere esleipen-egileak 10 puntutan handitu zuen eskaintza ekonomikoaren garrantzia; positibotzat jo behar dugu hori.

Alabaina, Administrazioak eskaintza ekonomikoa balioesteko erabilitako formulak enpresek lanegunetarako eta jaiegunetarako eskaintako bi prezioen batez bestekoa egiten du, aldiaren dauden kategoria bakoitzeko egun kopurua haztatu gabe.

Aurreko urteetako esperientzia eta seinalatutako jaiegunen eta daten egutegia kontuan hartuta, lizitazioaren xede den zerbitzuak eskatuko direneko lanegunen eta jaiegunen kalkulua egiteko moduan egon beharko litzateke Administrazioa, eta agirietan sartu beharko luke datu hori, enpresek eskaintza errealistak egin eta Administrazioak haiek egoki balioetsi ahal izateko.

Eskaintza ekonomikoari buruzko kalkulua egiteko formulak egoki eta zehaztasunez egin beharko luke haztatze hori.

²⁰ Iragarkia, «A-8an eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko zerbitzua» xede duen zerbitzuen administrazio-kontratua lizitatzeko dena (Espedientea: T-015/15). Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 2014ko azaroak 24, 224. zk., 5026. or.



- Balioespen subjektiboko irizpideak

29. Balioesten diren irizpideetan, nabarmentzekoa da GPSa desagertu dela (Gruautok 5 puntu lortuak zituen eta Islak, berriz, 0 puntu, T171/14 prozeduran).

GPS sistema edukitzea irizpide gisa eskatu izan da gutxienez ere 2011tik, eta batzuetan guztizko puntuaziotik 10 puntu ere balio izan du (ikus T-216/11 eta T-103/12 kontratuak)²¹.

30. Garabiek erantzuteko denboraren balioespenean, Administrazioak puntuazio bera eman zien bi eskaintzei, nahiz eta proposatzen diren erantzute-denborak desberdinak izan; hartara, ez zien inongo baliorik eman lizitzaileetako batek eskaintza hobea egin izanari.

31. Bestalde, ez datoz bat enpresetako bakoitzak eskainitako garabi kopuru gehigarria balioesteko erabilitako bitartekoak. Zerbitzurako dauden ibilgailuak eta garraiatu ahal dituzten tonak direla-eta eskaintzen diren hobekuntzak balioesteko Administrazioak erabilitako metodoak kontuan hartzen du aurreko kontratuetan emandako erantzuna. Irizpide horrek argiro egiten dio mesede ukitutako enpresari, zeren eta sartu nahi duen inongo enpresak ez baitu aipatutako aurrekaririk.

32. Ildo beretik, proposatutako ordutegi-tarteak zabaltzea dela-eta proposatzen diren hobekuntzei dagokienez, botere esleipen-egileak zortzi puntu ematen dizkio sartutako enpresak eskaintzen duen hobekuntzari, zeina baitatza konpromisoa hartzean kontratua itundutako ordutegiaz kanpo gertatzen diren laguntza-zerbitzuak egiteko, salbuespenik gabe, urteko 365 egunetan, denbora berdinetan eta Euskadiko Trafiko Kudeatzeko Zentroak eskatzen duen eraginkortasun berarekin. Kontuan hartuta eskaintza hori gaindiezina zela, hobekuntzetarako puntu gehienekoarekin (15) balioetsi behar zen, eta ez soilik zortzi punturekin.

- Ondorioa

33. Azterketa honek dakarren ondorioa da ezen agiriaren diseinuak eta Administrazioak egindako interpretazioak tratamendu desberdina inplikatzeko dutela esleipen-txostenaren balioespenean, zeina zerbitzua orain arte eman izan duen enpresaren alde egin baita, eta horretarako arrazoirik ez zegoela. Era

²¹ Jasota dagoenaren arabera, T216/11 espedientetik eskatu izan da. Urte bereko beste espedienteak, T-319/11 zenbakikoa, publizitaterik gabeko kontratu negoziatu bat izan zen; hori dela eta, espediente horri buruzko informazioa ezin da eskuratu.



berean, enpresen arteko berdintasun printzipioa urratu da, eta kontratazioan lehia izatea eragotzi da.

Kontratua Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak deuseztatu zuen²².

D. 135/15 espedientea

a. Deskribapena

34.Lizitaziorako prozedura irekiaren bitartezko esleipen berria egin arte zerbitzua emateko, publizitaterik gabeko prozedura negoziatura jo zen. Lizitazio-oinarriaren aurrekontua eta zenbatetsitako balioa 60.000 eurokoa zen.

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:
T-135/15	2015/06/01	2015/07/30	2015/12/31

45510000-5 CPVa esleitu zitzaion kontratuari, "bestelako zerbitzuak, 27. zenbakia" kategoriaren pean.

Lizitazioaren gehienekoa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)	
Lanegunak	Jaiegunak
55 €/o.	65 €/o.

Ondoren, esleipenerako irizpideak eta azpi-irizpideak jaso ditugu.

Balioespen-irizpideak (100 puntu, gehienez)				
Ekonomikoa	Memoria teknikoa (15 puntu)		Hobekuntzak	
80 puntu	1,5	Lanean arituko diren pertsonen prestakuntza eta trebakuntza.	5	Garabi-zerbitzurako ezarritako geldialdi-ordutegiak zabaltea, kostu gehigarriak gabe.
	1,5	Zerbitzua ematean erabiliko diren seinaleak eta janzkera.		
	1,5	Erreskatatutako ibilgailuak erretiratzeko gunearen hurbiltasuna.		
	1,5	Garabia istripuaren tokira iristeko batez besteko denbora eta garabiak zerbitzurako aurreikusi den jardun-gunean berriz egoteko behar duen denbora.		
	1,5	Behar izanez gero, zerbitzurako errefortzuko garabiak jartzea.		
	1,5	Egindako erreskate-jarduketei buruzko txostenak bidaltzea.		
	1,5	Erreskate-eskarietarako telefono bidez erantzutea.		
	1,5	Garabien kudeaketa erreskate-jarduketetan.		
	1,5	Garabiak aldeztatik kokatzea aurrez finkatutako jardun-guneetan.		
	1,5	Zerbitzurako interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuk (orain artekoan balioetsi ez direnak).		

Irizpide ekonomikoaren balioespena formula matematiko baten bidez egiten da, non lanegunak eta jaiegunak haztatzen diren (jaiegunetarako eskaintzak % 25eko balioa du, eta lanegunetarakoa, berriz, % 75ekoa).

²² 51/2015 Ebazpena, 2015eko apirilaren 30ekoa, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Sailak izapidetutako "A-8an eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko zerbitzua" kontratuaren esleipena dela-eta GRUAUTO ASISTENCIA SLk aurkeztutako errekurtso bereziari buruzkoa.



Memoria teknikoak jardunbidearen diseinua jasotzen du (15 puntu) eta 10 alderditan xehakatzen da: horietako bakoitzari 1,5 puntu ematen zaio.

Hobekuntzen irizpidea bost punturekin balioesten da, eta hobekuntza jakin bat baizik ez da aurreikusten.

35. Espedientearen negoziazioaren aurretiko balioespen-txostenean (2015eko uztailaren 2koan), Islari proposatzen zaio honako hauek hobetu ditzala:

- eskainitako prezioak
- garabia istripuaren tokira iristeko batez besteko denbora eta garabiak zerbitzurako aurreikusi den jardun-gunean berriz egoteko behar duen denbora.
- beharra izanez gero, zerbitzurako errefortzuko garabiak.
- egindako erreskate-jarduketei buruzko txostenak bidaltzea.
- garabiak aldeztatik kokatzea aurrez finkatutako jardun-guneetan.

Gruautori, zeinari jardunbidearen diseinuan gehieneko puntuazioa eman baitzaitzaion, bakarrik proposatzen zaio eskainitako prezioak berraztertzeko.

Azkenik, honako hau izan zen egindako eskaintza:

Eskainitako prezioa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)			
Gruauto		Isla	
Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak
25 €/o.	30 €/o.	24 €/o.	25 €/o.

Administrazioak, honako balioespen hau egin zuen:

Irizpide objektiboetan lortutako puntuazioa 80 puntu	Balioespen-irizpideetan lortutako puntuazioa				
	Memoria teknikoa 15 puntu		Hobekuntza gehigarria 5 puntu		
	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto
73,90	80	15	13,50	5	5

Balioespen subjektiboko irizpideetan Gruautok 20 puntu lortu zituen eta Islak, berriz, 18,5. Islak prezioan egin duen eskaintza hobea dela-eta, kontratua esleitu zitzaion, zeren eta 98,50 puntu lortu baitzituen; Gruautok, berriz, 93,90 lortu zituen.

b. Balioespena.

- Eskaintza ekonomikoa

36. Kasu honetan, positibotzat jotzen da prezioak funtsezko garrantzia eduki izana (80 puntu).

Ezin da ulertu, halere, Administrazioak, enpresek egindako eskaintzen aurrekariak eta esleipen-prezioak ikusita, ordu bakoitzeko gehieneko prezioak lanegunetan 55 eurotan eta jaiegunetan 65 eurotan mantentzea.



- Balioespen subjektiboko irizpideak

37. Balio-judizio baten pean jarritako alderdiei dagokionez, positiboki baloratu behar da haiek zehatzagoak izatea eta zehatz kuantifikatuta egotea²³.

Hala eta guztiz ere, horiek guztiak ezin dira egokitzat hartu puntuatu beharreko esleipenerako azpi-irizpide gisa: 1. atala, "langileen prestakuntza", 2. atala, "seinaleak eta janzkera", 6. atala, "txostenak egitea", eta 7. atala, telefono bidezko arretari buruzkoa, oinarri teknikoen agirian jaso beharko lirateke zuzenean eskatzekoak diren baldintzen gisara, horrenbestez, haien balioespena egin behar izan gabe.

10. atala, "Bestelako alderdiak..." zehaztu edo kendu beharko litzateke.

Horren ordeaz, 3. 4. 5. eta 9. atalak erabakigarriak dira zerbitzua egoki emateko; horrenbestez, gainerakoek baino garrantzi handiagoa eduki beharko lukete.

38. Hobekuntzei dagokienez (100 puntutik 5 puntu), gure ustez hobetzekoa litzateke irizpidearen araupetzea, kasu honetan haien eragina oso handia izan ez bada ere, bi enpresek gehieneko puntuazio lortu baitute. Atal horren honako hau ezartzen du:

"Hobekuntza gehigarri bakar gisa balioetsiko da 5 puntuko gehieneko puntuazioarekin, garabien zerbitzurako ezarritako ordutegi-tarteak zabalitzea, kostu erantsirik gabe; hau da, aldeaz aurretik zerbitzurako finkatutako ordutegiaren barruan hasitako erreskate jarduketara baterako, zerbitzu-ordutegiaren amaieran oraindik eta gauzatzen ari baldin bada, enpresa lizitatuak gehitu beharreko denbora jarriko du, eta konpromisoa hartzen du jarduketarekin jarraitzeko, ez Trafiko Zuzendaritzarako, ez erreskatatutako ibilgailu partikularrarentzat inongo kosturik sortu gabe."

Hobekuntza horren idazkeran aipatutako luzatze-denboraren aldia graduatzeko irizpideren bat sartu beharko litzateke (zeina enpresek hobekuntza gehigarri moduan eskainiko bailukete), eta puntuazio jakin bat eman beharko litzaiokete, objektibagarria, gehienez ere eskainitako 5 puntuko puntuazioaren barruan. Halako idazkera batek lehia hobetu lezake eta interpretazio-arazoak saihesteko balio lezake.

²³ Ikus Lehiaren Batzorde Nazionala, *Kontratazioari buruzko Gidaliburua*, op. cit. 2. atala B. 8, 20. or.: "Puntuazio irizpideek balio-judizioak jasotzen dituztenean, gomendagarria da zehaztea zein izango diren ebaluazio kualitatibo horretarako kontuan hartuko diren elementuak, haiek azpi-irizpideen bitartez deskribatuz eta horietako bakoitzari emango zaion puntuazioa aipatuz."

**E. 7/16 espedientea****a. Deskribapena**

39. Beste prozedura ireki bat izapidetu zen, lizitazio-oinarri gisa 277.686 euroko aurrekontua duena. Zenbatetsitako balioa 610.909,06 eurokoa da.

Espedientea	Iragarkia argitaratzeko edo enpresei bidaltzeko data	Formalizazioaren data	Aurreikusitako hasierako exekuzioa luzapenik gabe egun honetara arte:
T-7/16	2015/10/27	2015/12/28	2017/12/31

Berriz ere zerbitzu-kontratu moduan sailkatzen da, 50118110-9 CPVren pean, eta haren kategoria "mantentze eta konponketa zerbitzuak, 1. zk." da. Hori dela eta, erregulazio harmonizatuko baldintzak ezartzen dira eta enpresei R.7.B. epigrafearen peko sailkapena exijitzen zaie.

Balioespen irizpideen puntuazioari publizitaterik gabeko aurreko aurreko negoziatuan bezala eusten zaie.

Balioespen-irizpideak (100 puntu, gehienez)			
Ekonomikoa	Memoria teknikoa (15 puntu)		Hobekuntzak
80 puntu	1,5	Lanean arituko diren pertsonen prestakuntza eta trebakuntza.	5 Garabi-zerbitzurako ezarritako geldialdi-ordutegiak zabaltea, kostu gehigarriak gabe.
	1,5	Zerbitzua ematean erabiliko diren seinaleak eta janzkera.	
	1,5	Erreskatatutako ibilgailuak erretiratzeko gunearen hurbiltasuna.	
	1,5	Garabia istripuaren tokira iristeko batez besteko denbora eta garabiak zerbitzurako aurreikusi den jardun-gunean berriz egoteko behar duen denbora.	
	1,5	Behar izanez gero, zerbitzurako errefortzuko garabiak jartzea.	
	1,5	Egindako erreskate-jarduketei buruzko txostenak bidaltzea.	
	1,5	Erreskate-eskariari telefono bidez erantzutea.	
	1,5	Garabien kudeaketa erreskate-jarduketetan.	
	1,5	Garabiak aldeztetik kokatzea aurrez finkatutako jardun-guneetan.	
	1,5	Zerbitzurako interesgarriak izan daitezkeen beste alderdi batzuk (orain artekoan balioetsi ez direnak).	

Kontratu honetan, ez dira aldatzen ez zerbitzua eskaintzen duten enpresek eman beharreko zerbitzuak, ez eta kontrataziorako gainerako baldintzak ere. Administrazioak, ordea, kontratuaren CPVa eta haren kategoria aldatzen ditu.

Lehiatu ohi ziren bi lizitzaileetatik, enpresa onuradunak lortzen du sailkapena eta bestea baztertu egiten da, halakorik ez edukitzeagatik.

Lizitazioaren gehienekoa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)	
Lanegunak	Jaiegunak
55 €/o.	65 €/o.

Aztertutako eskaintza hurrengo taulan azaldutakoa da:

Eskaintako prezioa (euroak garabi-ordu bakoitzeko)			
Gruauto		Isla	
Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak
Baztertua		53 €/o.	60 €/o.



Islak orduko 53 euroko eskaintza aurkezten du lanegunetarako eta orduko 60 eurokoa, berriz, jaiegunetarako; aurreko lizitazioan ordean, non eskaintzen aurkezpenean nolabaiteko lehia eraginkor bat izan baitzen, Islak orduko 24 euro eta 25 euro eskaini zituen.

Irizpide objektiboetan lortutako puntuazioa 80 puntu		Balioespen-irizpideetan lortutako puntuazioa			
		Memoria teknikoa 15 puntu		Hobekuntzak 5 puntu	
Gruauto	Isla	Gruauto	Isla	Gruauto	Isla
--	80	--	10	--	5

40. Kontratua ez zen gauzatzera iritsi, zeren eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan errekurtsoa aurkeztu baitzen, lizitazioari emandako publizitatean arazoak izan zirelakoan. Erakunde horrek gogorarazten du legeak eskatzen dituen iragarki desberdinetan jasotako baldintzek kontratu-izaera dutela.

Hori dela eta, errekurtsoa baiesten du eta beste lehiaketa bat egitea eskatzen du²⁴.

b. Balioespena

- Administrazioak sailkapena eskatzea eta kontratuaren publizitaterik ez izatea

41. Kontratuen publizitate-akatsak lehiakortasuna mugatzen dute, zeren eta eragozten baitute balizko eskaintzaileek ezagutzea kontratazio-prozedura ireki dela eta haren terminoak zein diren.

Hartara, eragozten da balizko lehiatzaileen ahal den kopuru handienera iristea; izan ere, lehiatzaile horiek zerbitzuaren prezioa, kalitatea eta berrikuntza direla-eta eskaintza hobeak egin zitzaketen.

²⁴ 8/2016 Ebazpena, 2016ko urtarrilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarena. Horren bidez, Gruauto Asistencia SLk «A-8 eta bere lotuneetatik ibilgailuak premiaz kentzeko garabi arinen zerbitzu erabilgarria» kontratatzeke esleipen-prozeduratik kanpo geratu izanaren aurka jarritako errekurtso berezia ebazten da. Gruautok errekurtso berezia aurkeztu zuen Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan, alegatuz ezen, iragarkiak aldizkarietan eta egunkarietan aginduzkoa den argitalpena egiterakoan, zenbait kontraesan badaudela, eskakizun horri erantzun lausoa ematen diotenak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 142.3 artikulua debekatzen du iragarki nazionalak jasotzea EBAOko iragarkian sartutako aipamenez bestelako ezer). Ikusi dugu EBAOren iragarkian sailkapena ez dela aipatu eta kaudimena egiaztatzeke eskakizuna egiten dela; BOEn sailkapena besterik ez da aipatzen; EHAren iragarkian sailkapena eta kaudimenaren egiaztapena eskatzen dira; eta, agiriaren karatulan sailkapena eskatzen da Espainiako enpresentzat, eta Espainiatik kanpoko Erkidegoko enpresentzat, berriz, kaudimenaren egiaztapena.



42. Ikusi dugun bezala, kontratu honetan sailkapena eskatzen zaie enpresei.

Eskakizun hori T-103/12 kontratuan eskatua zen, baina kontratu hori eman gabe geratu zen Islak —kasu hartan eskaintza egin zuen bakarra— sailkapen hori ez zeukalako. Ondotik, Administrazioak ez dio eskakizun hori eskatu, 45510000-5 CPVa (obra kontratua) esleitu baitio kontratuari, zerbitzuen kategoriaren pean: "bestelako zerbitzuak, 27. zk."

Oraingoan, kontratua, zehazki, 1. kategoriaren barruan sailkatzen da —mantentze eta konpontze zerbitzuak—, eta bere xedeari dagokion CPVarekin, 50118110-9 hain zuzen.

Agiria argitaratzeko unean (2015eko urriaren 27a), Kontratuen Legeak aukera ematen zion Administrazioari sailkapena eskatzeko. Legearen erregelamenduak indarra hartzearekin, azaroaren 5ean, egun gutxi batzuk igarota, sailkapenaren eskakizun hori desagertzen da.²⁵

Egitate horren egokitasunaren balioespena eta Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak lizitazioa deuseztatzea eraman duten publizitate arazoak zein diren ere, lehiaren ikuspuntutik agerian jarri beharra dago Administrazioaren jarrera-aldaketak, kontratatutako zerbitzuan hori justifikatzen duten aldaketak gertatu gabe, berarekin ekarri duela merkatuan sartu nahi zuen lehiatzailea kanporatzea²⁶. Funtsean elkarren berdinak diren kontratuetan Administrazio beraren kontratazio-organo berak kaudimen-baldintza desberdinak eskatzeak ekarri du enpresei azaltzen zaila den tratamendu desberdina ematea²⁷.

- Lehiarik ez izatearen ondorioak

43. Lehiarik ez izateak, kasu honetan, ondorio deigarri bat izan du. Enpresa onuradunak, zeinak gutxienez ere 2011tik etenik gabe jardun baitu zerbitzua ematen, kontratuetan zerbitzu bera ematearen truke orduko 24 euro eta 60 euro bitarteko prezioak aurkeztu izan ditu. Aldea gertatzen da eskaintza lehia dagoenean egin ala enpresa bakarrak egin.

²⁵ Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko laugarren xedapen iragankorrak testu beraren 65. artikuluan jasotako "sailkapena ez eskatzearen" indarra-hartzea atzeratu zuen erregelamenduak (773/2015 Errege Dekretua) indarra hartzen ez zuen arte —2015eko azaroaren 5ean hartu zuen indarra—.

²⁶ Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren zuzendariaren azaroaren 23ko Ebazpena, zeinaren bidez Gruauto "A-8an eta sarbideetan garabiak erabilgarri izateko eta ibilgailuak urgentziaz kentzeko" zerbitzuaren kontratazio-prozedurarik kanpo uzten baitu. T-007/16.

²⁷ Lehiaren Batzorde Nazionala, *Kontratazioari buruzko gidaliburua*, op. cit., 13. or.



Administrazioak behin eta berriz egiaztatu ondoren enpresek zerbitzua eskain dezaketela aurreko kontratuetan gehieneko gisa planteatutakoak baino askoz ere prezio baxuagoetan, ezinbesteko gertatzen da Administrazioak berrazter ditzala lizitazioetako gehieneko prezioak, haiek egokituz lehiaketa-merkatuaren errealitatean egiaztatu direnei²⁸.

4.- Kontratazio-prozesuaren ikuspegi orokor bat, lehiaren perspektibatik

44. Kontratazio prozesu desberdinen analisi erkatuak zenbait ondorio lortzeko aukera ematen du.

Zenbait erreforma positibo ikusten dira lehiaren ikuspuntutik, zeinek beraiekin baitakarte eskaintza ekonomikoak garrantzi handiagoa hartzea balioespenetan; izan ere, 55 puntutik 80 puntura pasatu da. Hori, oro har, lagungarri gertatzen da lehia bermatzeko eta baliabide publikoak efizientziaz erabiltzeko.

Halaber, egiazta daiteke ezen, kontratazio-prozesuek aurrera egiten duten neurrian, zuzentzen joan direla, partzialki bada ere, formula ez oso argiak edo behar zen proportzionaltasuna bermatu ez eta eskaintza ekonomikoak kontratuaren esleipenean zeukan eragina itxuraldatzen zutenak erabiltzetik heldutako arazoak.

Halaber, irizpide subjektiboen balioespenerako azpi-irizpideak zehaztu eta kuantifikatu dira.

Hobekuntzek, beren aldetik, 40 punturekin balioestetik, 2014koa baino lehenagoko lizitazioetan, 20 punturekin balioestera T-058/14 prozeduran, 15 punturekin, 171/14 eta 15/15 prozeduretan eta soilik 5 punturekin T-135/15 eta T-007/16 prozeduretan.

Balioespen positibo horiek ezin dute ezkutatu, halere, lehiaren ikuspuntutik egin beharreko judizio negatiboa, beste alderdi batzuei dagokienez.

²⁸ 64/2013 Ebazpena, 2013ko uztailaren 24koa, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titularrena, Kirolekin SLk aurkeztutako kontratazio-arloko errekurtsu bereziari buruzkoa. Errekurtsua Leioako Udalaren kirol instalazioetan antolatutako kirol jardueren, asteburuko sorospenen eta udal instalazioetako sarbideen kontrolaren zerbitzuetarako kontratuaren baldintza teknikoaren agiriaren eta administrazio-klausula zehatzen agiriaren aurkakoa zen. 104/2015 Ebazpena, 2015eko urriaren 9koa, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titularrena, kontratazio-arloa dela-eta NESTLÉ ESPAÑA SAK eta ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE FABRICANTES Y DISTRIBUIDORES DE PRODUCTOS DE NUTRICIÓN ENTERAL elkarteak aurkeztutako errekurtsu bereziei buruzkoa. Errekurtsuak "Euskal Autonomia Erkidegoko zentro sozio-sanitarioetan dietetika-produktuak hornitu eta emateko esparru-akordioaren" lizitazioa arautzen duten agirien aurkakoa da. Osakidetza izapidetu zuen lizitazio hori.



45. Administrazioak ireki eta aurrera eraman dituen kontratu guztiak deuseztatu egin ditu Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak.

Erakunde horrek aditzera eman du aztertutako prozesuek enpresa onuraduna behin eta berriz kokatu dutela abantaila posizioan, sartzeko aukera izan zezakeen enpresaren aurretik.

Era berean, kontratu negoziatu guztietan aditzera eman dira berdintasun printzipioaren urratzeak, zeinek enpresa onuradunari mesede egiten baitiote sartzeko aukera izan dezaketen gainerakoen aurretik, eta horrek lehia eraginkorra eragotzi du.

Aztertutako aldian, prestazioaren edukia ez da aldatu. Hala eta guztiz ere, kontratuak txertatzen direnako kategoriaren kontsiderazio gorabeheratsuak eta hasieran zuzena izateak, gero kontratuaren eduki objektiboarekin loturarik ez omen izateak eta azkenean, 2016. urtean, enpresa onuradunak legezko baldintzak bete ondoren, kategorizazio zuzenera itzultzeak judizio guztiz negatiboa egitea dakar.

46. 171/14 eta 135/15 prozeduretan negoziazioa oinarritzen deneko terminoak oso ere antzekoak dira, baina ikusi da bietan sartu nahi duen enpresa baztertu egin dela.

171/14 prozeduraren negoziazioan Islaren alde egin da, aukera eman baitzaio prezioa berraztertzeke, jada iruzkindu dugun bezala, eta hartara eragotziz Gruautok gauza bera egin ahal izatea.

135/15 espedientearen negoziazioaren aurretiko balioespen txostenean, Islari proposatzen zaio bere proposameneko bost alderdi hobetu ditzan (ekonomikoa eta jardunbidearen diseinukoa); Gruautori, berriz, zeinari jada jardunbidean gehieneko puntuazioa eman baitzaio, eskainitako prezioak berraztertzeke aukera ematen zaio soilik.

47. Balio-judizio negatiboena sortzen duen elementua, ordea, Administrazioak izan duen jarduerari dagokiona da hain zuzen, eta agerian jartzen da baldin eta konparatzen badira lizitazio prezioak eta aurreko prozeduretan izan diren esleipen-prezioak.

Egoki da kasu honetan berrestea eskaintza ekonomikoei dagokien informazioaren atala.

Espediente-zenbakia	Lizitazioaren gehieneko prezioa, ordu bakoitzeko zenbat euro		Eskainitako prezioa (ordu bakoitzeko zenbat euro)			
			Gruauto		Isla	
	Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak	Lanegunak	Jaiegunak
T-058/14	60	70	35	35	50	56
T-171/14	60	70	35	35	35	35
T-015/15	60	70	35	35	28	39



T-135/15	55	65	25	30	24	25
T-007/16	55	65	Baztertua		53	60

Enpresek eskaintako prezioen aldaketa egite hutsak bidea ematen du ondorioztatzeko Islak prezio nabarmen altuagoak eskaintzen dizkiola Administrazioari lehiarik ez dagoen kasuetan.

Lehia dagoen lehenengo kasuan (58/14) sartu nahi duen enpresa behartzen da justifikatzera bere eskaintza ez dela ausarkeriazko baja bat, eta hori egiteko moduan duen arren, kontratua onuradunari esleitzen zaio, azalpen gehiagorik eman gabe.

Hurrengo kontratuan, negoziatuan (171/14), enpresa onuradunak bere prezioa jaitsi zuen hain zuzen ere hasiera batean sartu nahi zuen eskaintako preziora, baina kontratua esleitu zitzaion hobekuntzak egiteagatik soilik berari baimendutako esparruetan. Izan ere, lanegunetako prezioa hobetu zuen, halako moduz non batez besteko aritmetiko baxuagoa lortzen duen sartu nahi duen enpresak baino, eta Administrazioak ez ditu lanegunak eta jaiegunak haztatzen; izan ere, horrek aukera eman izango zion egiaztatzeko eskaintzarik onena sartu nahi zuen enpresarena zela.

Hurrengo kontratuan, 135/15 zenbakikoan, onuradunak eskaintza nabarmen baxuagoa egin zuen sartu nahi zuen enpresak baino.

Kontratu horretako prezio-jaitsierak agerian jartzen du nolako abantaila argiak dauzkan gizartearentzat eta Administrazioaren efizientziarentzat kontratazio publikoan lehia izateak.

Ondorio bera, baina tamalez alderantziz, lor daiteke publizitateari buruzko gaiak direla-eta deuseztatutako azken kontratuan lehiarik ez egotearen eraginei buruz. Kasu horretan, sartu nahi zuen enpresa bazter utzita, onuradunak, bere egoera ezagututa, zerbitzua berriz ere eskaintzen du lehiarik ez zegoenean eskaintzen zituen prezio berdinekin.

Administrazioak lehia askearen bermea sartu behar du bere jarduketan. Hori dela eta, merkatuko prezioei egokitutako gehieneko prezioak finkatu beharko ditu, eta baliabide publikoen erabilera arrazionalizatzen lagundu behar du²⁹.

IV.- GOMENDIOAK

LEHENA. Administrazioak antolamendu juridikoan aurreikusitako neurri guztiak jarri beharko ditu kontratazio efiziente, garden eta ez-baztertzaila lortzeko.

²⁹ Ikus Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren jada aipatutako 64/2013 eta 104/2015 ebazpenak, bai eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Espainiako kontratazio publikoari eta haren hobekuntza-aukerei buruz egindako txostenean —lehenago aipatutakoan— Administrazio Publikoari ematen zaizkion gomendioak ere.



Horretarako, indartu behar du eskaintzen lehiakortasuna sustatzen duten enpresa berriei lizitazio-prozedurak irekitzea, halako moduz non bai emandako zerbitzuaren kalitatea, bai ordaindutako prezioak hobetuko diren.

BIGARRENA. Administrazioak, zerbitzua zein merkatu-preziotan eman daitekeen egiaztatuta, agirietan finkatutako gehieneko prezioak berraztertu behar ditu, baliabideak efizientziaz erabiltze aldera.

HIRUGARRENA. Administrazioak, kontratazio-prozedura negoziatuak eginez gero, enpresa guztiei kalitatean eta prezioan eskaintzak hobetzeko aukera berak eskaini behar dizkie.

LAUGARRENA. Administrazioak kontratazioan ezarritako baldintzak egiaztatu behar ditu, egiaztatuta haien beharrezakoa eta bilatzen den helbururako haien proportzionaltasuna, eta ez ditu ezarri behar merkatuan sartzeko oztopo bidegabeak sortzen dituzten baldintzak. Esperientzia luzea kontuan hartuta, Administrazioak zerbitzua zehaztasun handienarekin deskribatu behar du, behar den informazioa eskainiz enpresa guztiek (onuraduna eta sartu nahi dutenak, berdintasunean) eskaintza errealistak eta lehiakorak egin ahal izateko.